

logiko eta gerraren gertaleku (gudu-zelai) gisa katalogatuta, bide eman nahi da halaber oharkizun horiek guztiak aintzat har daitezzen eremuan edozein azterlan egiteko garaian.

Laburbilduta esango genuke Gazteluatxeko gailurrean bildutako buztinezko geruza hondakinek aukera ematen dutela bertan depositu arkeologikoa dagoela baieztatzeko, haren kronologia oraindik zehaztu gabe badago ere material hori denbora luzean erabili izanagatik. Horri erantsi behar zaizkio Konbentzioko Gerraren garaian (1794-1795), eta bi Gerra Karlistetan eremu honetan izan ziren guduen inguruko albisteak, «Elgetako Guduak» (1876ko otsailak 13) protagonismo berezia izanik. Era berean, aipatzekoa da, Gerra Zibilaren garaian (1936-37) Elgetako Frontearekin loturiko landako gotorlekuen (lubakiak) presentzia. Horrek guztiak badu oinarri nahikoa gailur hau aztarnategi arkeologiko gisa katalogatzeko.

talogación de Gazteluatx como yacimiento arqueológico y teatro de operaciones (campo de batalla), también se quiere dar pie a que todas esas observaciones sean tenidas en cuenta cuando se acometan diferentes estudios en la zona.

En resumen, las muestras de manto de barro recogidas en la cima de Gazteluatx permiten confirmar la existencia de un depósito arqueológico, de cronología por determinar debido al dilatado período de uso de este material. A ello hay que añadir las noticias sobre combates en la zona durante la Guerra de la Convención (1794-1795) así como durante las dos guerras Carlistas, con especial protagonismo de la «Batalla de Elgeta» (13 de febrero de 1876), así como la presencia de fortificaciones de campaña (trincheras) vinculadas al Frente de Elgeta durante la Guerra Civil (1936-37). Todo ello conforma una base suficiente para que esta cima sea catalogada como yacimiento arqueológico.

A. Martínez Velasco

C.11. ERREENTERIA

C.11.1. Aitzbitarte IV leizea. Horma-arte

I. Kanpaina
Zuzendaritza: Diego Garate
Finantzazioa: Berak finantzatua

C.11.1. Cueva Aitzbitarte IV. Arte parietal

I Campaña
Dirección: Diego Garate
Financiación: Propia

Visual inspection of the cave walls has revealed several red paintings. Their characteristics make it impossible to give them a precise date during the late Palaeolithic period.

Aitzbitarte IV leizea aski ezaguna da lehenbiziko Lersundiko kondeak 1892. urtean, eta gero, 40 m² inguruko azalera batean, J. M. Barandiaranek 1960 eta 1964 urte artean induskatutako sekuentzia arkeologiko garrantzitsuari esker. Azken indusketa-lan horietan berreskuratutako sekuentziak Paleolitoaren osteko testigantzak eskaini zituen azaleratik hurbilen zeuden geruzetan, Azil Aldiko geruza bat (Ia), Azil-Goi Madeleine aldiaren amaierako maila bat (Ib), Goi Madeleine aldiaren amaierako bat (II), Erdi-Goi Madeleine aldi-tako bat (III), Goi Solutre Aldiko bat (IV) eta Goi Paleolito maila bat zehaztu gabea, seguru asko Auriñac aldikoa (V) (Barandiaran 1988).


2012. urtean aurkitutako Paleolito Aroko horma-artearen testigantzak bi eremu desberdinetan daude, sarrerako eremuan, kaltzitaz estalitako orban gorri bat dago han, eta leizeko azken zatian, marra eta orban gorriak ageri dira han kaltzitazko xafla lodi batek estaliak.

Leizeko eskuineko ezkaratzean dago lehen panela, karrerape handi batek babestua. Hala ere, nabari da hartan eragin handia izan dutela gizakiaren esku hartzeek nahiz giroko baldintzek eta baldintza geologikoen. Portxe handiaren eta eskuineko ezkaratzaren arteko igarobidean dago, eta estalagmita-zutabe handi batek bereizten ditu bi gune horiek. Haren muturrean kaltzitazko hainbat

El yacimiento de Aitzbitarte IV es bien conocido por su importante secuencia arqueológica excavada primero por el conde de Lersundi en 1892 y posteriormente, en una superficie de unos 40 m², por J. M. Barandiarán entre 1960 y 1964. La secuencia recuperada en estas últimas excavaciones proporcionó evidencias post-paleolíticas en las capas más superficiales, un nivel Aziliense (Ia), otro Aziliense-Magdalenense Superior final (Ib), un Magdalenense Superior Final (II), Magdalenense Medio-Superior (III), Solutrense Superior (IV) y un nivel del Paleolítico Superior indeterminado, posiblemente Auriñaciense (V) (Barandiarán 1988).

Las evidencias de arte parietal paleolítico localizadas en 2012 se ubican en dos zonas distintas, el área de la entrada donde existe una mancha roja cubierta de calcita y, el tramo final de la cavidad donde se identifican líneas y manchas rojas cubiertas por una espesa plancha de calcita.

El primer panel se encuentra en el vestíbulo derecho de la cavidad, protegido por un amplio porche; pero aún así muy afectado tanto por la intervención humana como por las condiciones ambientales y geológicas. Se localiza en la transición entre el gran porche y el vestíbulo derecho, formada por una amplia columna estalagmítica que separa ambos espacios. En el extremo de la misma se forman varias co-



Leizearen planoak, grafiak dauden lekuan (Manteca *et al.* 1997tik abiatuta).

Plano de la cueva con la localización de las grafías (a partir de Manteca *et al.* 1997).

zutabe eratu dira, egitura nagusiari lotuak, eta haietako baten gainean kolore gorriaren arrastoak ageri dira, orban zirkularra da, 20 cm diametrokoa eta ondo mugatua.


Bigarren panela, berriz, leizeko azken zatian dago, bazter samarrean dagoen eremu batean, baina leizearen barnean ibiltzeko ardatz nagusiaren barnean betiere. 5 metro inguruko ibilbidea eta batez beste 1,50 metroko zabalera dituen alboko bidean dago, eta halako plano ahur-ganbil batzuk ageri ditu, urak hormetan eragindako higaduraren ondorioz sortuak. Bideko ezkerreko horman, leizearen barnealderantz doan norabidean daude aztarna gorriak, sakonune handi batean.

Panelaren goiko muturrean 18 cm-ko marra gorria ageri da eta ertzetara barreiatu da haren koloregaia, inguruan formarik gabeko orban sortuz. Panelaren beheko aldean 3 marra bereiz daitezke elkarri lotuak. Lehen marra horizontala da, ondo definitua, 20 cm-koa eta aski lodia, 5 cm inguru, garbi ebaki egin du koladak, eta koloregai hondakinak ikus daitezke haren barruan. Marra horizontalaren ezkerreko muturretik beste bi marra bertikal abiatzen dira, makur samarrak eta erdi-paraleloak. Lehenbizikoak ematen du bat egiten duten bi marra dituela abiapuntuan eta gero 18 cm-ra jaisten da. 7 cm-ra dago bigarren marra, galdua-goa. Beheko muturrean, koloregaia higitu egin denez, marra ezin dira ondo definitu, baina itxura guztien arabera, bi marra horiek ez dira elkartzen beheko aldean, baizik eta halako

lumnas calcíticas unidas a la formación principal y sobre una de ellas se encuentran vestigios de coloración roja circular de 20 cm de diámetro y bien delimitada.

El segundo panel se localiza en el tramo final de la cavidad, en una zona ligeramente apartada aunque dentro del eje principal de tránsito dentro de la misma. El conducto lateral donde se encuentra, de unos 5 m de recorrido y anchura media de 1,50 m, presenta una serie de planos cóncavos-convexos formados por la erosión de las paredes por el agua. En la pared izquierda del conducto, en dirección hacia el interior de la cavidad, se encuentran los vestigios rojos sobre una concavidad muy pronunciada.

En el extremo superior del panel se observa una línea roja de 18 cm cuyo colorante se ha diluido hacia los márgenes, generando una mancha informe alrededor de la misma. En la parte inferior del panel se distinguen 3 líneas asociadas. Una primera línea horizontal, bien definida, de 20 cm y grosor considerable de unos 5 cm, está netamente cortada por la colada y es posible observar restos de colorante dentro de la misma. Del extremo izquierdo de la línea horizontal parten otras dos verticales, ligeramente inclinadas y sub-paralelas. La primera parece estar compuesta en su arranque por dos líneas confluentes para después descender hasta 18 cm. A 7 cm se encuentra la segunda línea más perdida. En el extremo inferior, el corrimiento del colorante impide una buena definición de los trazos pero, aparentemente, ambas líneas no



Aitzbitarte IV leizea. I. panela, orban gorri zirkularrekin. A: Argazkia; B: kalkoa.

Cueva Aitzbitarte IV. Panel I con mancha roja circular. A: Fotografía; B: calco.

distantzia batera jarraitzen dute. Koladaren beste aldean eta neurri batean karbonatoek estalia, 8 cm-ko marra lineal bertikal bat nabari da. Ezkerraldera jarraitzen duela ematen du, baina kaltzitazko koladak estali egin du.

Garbi dago Aitzbitarte IV leizeko multzo dekoratua guztiz xumea dela eta informazio urria eskaintzen duela Paleolitoaren garaian leizean aurrera eraman ziren hormetako jarduera grafikoen garrantziaren inguruan.

Hau ez da ordea, inolaz ere, kasu bakana, horma aztarna urri, figuratiboak nahiz ez figuratiboak, dituzten Kantauriko multzo gehienek (Asturiasen: Cueva, La Riera, Balmori, Mazaculos I eta II, Coberizas, Las Mestas, Los Murciélagos edo Kantabrian: Marranos, Porquerizo, Brujas, Estación, Redonda, Meaza, Sotarriza, Mirón, batzuk aipatzeagatik), antzeko urritasuna erakutsi baitute. Aitzbitarte IV leizetik hurbilen dagoen

se unen en su parte inferior, sino que se mantienen a cierta distancia. Al otro lado de la colada y parcialmente cubierto por carbonatos, se observa un trazo lineal vertical de 8 cm. Parece tener continuación a la izquierda pero la colada de calcita lo ha recubierto.

Es evidente que el conjunto decorado de la cueva de Aitzbitarte IV es especialmente modesto y aporta poca información sobre la entidad de las actividades gráficas parietales que se pudieron dar en la cavidad durante el Paleolítico.

Sin embargo este no es un hecho aislado, ya que buena parte de los conjuntos cántabricos que se componen de escasos vestigios parietales tanto figurativos como no figurativos (en Asturias: Cueva, La Riera, Balmori, Mazaculos I y II, Coberizas, Las Mestas, Los Murciélagos o en Cantabria: Marranos, Porquerizo, Brujas, Estación, Redonda, Meaza, Sotarriza, Mirón por citar algunos de ellos), muestran una parquedad



Aitzbitarte IV leizea. II. panela, aztarna gorriak dituzten 3 multzo.

Cueva Aitzbitarte IV. Panel II con 3 concentraciones de vestigios rojos.

inguruan, aipatzekoak dira Praile Aitz (García-Díez et al. 2012) eta Antoliña multzoak (Aguirre, 1998/00) edo jada desagerturiko Atxuri I leizea (Fernández García, 1971), horietan ere oso multzo xumeak atzeman baitira, Paleolitoan izan zituzten okupazioekin lotuak inolako erreparorik gabe.

Miaketa-lanei esker, beste era bateko horma testigantzak ere atzeman ahal izan dira. Interes berezia dute galeria nagusiko lehen atalean, ezkaratzaren eta eremu sakonagora eramaten gaituen mehargunearen artean, aurkitu diren ikatz markek eta deposituek. Ikatzez egindako markak edo marrak dira gehienak, lehentasunik ageri ez duen norabidean eginak, dozena erdi bat multzo dira, elkarren artean inolako loturarik gabeak. Gaur egun iritsi ezin garen altituden daude, 3 eta 4 metro artean. Testigantza horiek kronologikoki testuinguruan kokatu ahal izateko, laginak jaso genituen bi ikatz multzotatik, eta emaitza gisa argi erakutsi digute leizea Erdi Aroan erabilia izan zela, XI.-XIII. mendeen artean.

semejante. En el entorno más cercano a Aitzbitarte IV cabe señalar los conjuntos de Praile Aitz (García-Díez et al. 2012), Antoliña (Aguirre, 1998/00) o la reseña de la desaparecida cueva de Atxuri I (Fernández García, 1971), en los que se han identificado conjuntos muy modestos que se relacionan, sin reservas, con las ocupaciones paleolíticas de dichas cavidades.

Las labores de prospección también han permitido localizar otro tipo de evidencias parietales. Resultan de especial interés las marcas y depósitos de carbón localizados en el primer tramo de la galería principal, entre el vestíbulo y el estrechamiento que lleva al área más profunda. Se trata mayoritariamente de marcas o líneas de carbón sin una orientación preferencial y formando media docena de agrupaciones sin conexión entre ellas. Se sitúan a una altitud inaccesible en la actualidad, entre los 3 y 4 metros. Con el fin de poder contextualizar cronológicamente estas evidencias, se procedió a tomar muestras de dos concentraciones de carbón, con resultados que evidencian la incursión medieval en la cavidad, entre los siglos XI-XIII.

D. Garate Maidagan; J. Rios Garaizar; A. Ruiz Redondo; J. Tapia Sagarna

C.12. ESKORIATZA

C.12.1. **Atxorrotz gaztelua (lehen 'Aitzorrotz' deitua)**

Zuzendaritza: Itsaso Egizabal Santos
Finantzazioa: Eskoriatzako Udala;
Gipuzkoako Foru Aldundia

C.12.1. **Castillo de Atxorrotz (antes denominado 'Aitzorrotz')**

Dirección: Itsaso Egizabal Santos
Financiación: Ayuntamiento de Eskoriatza;
Diputación Foral de Gipuzkoa

The 2013 season of excavations concentrates on identifying elements of human activity during Late Antique times in Atxorrotz.

Eskoriatzako Bolibar-Ugazua auzoan dago Atxorrotz aztarnategi arkeologikoa. Aztarnategi horretan 2013. urtean egin dugun indusketa kanpainan esku hartze arkeologiko bakarra egin zen apirila eta ekaina bitartean.

Aurtengo kanpainan altxatu egin genuen I. Barandiaranen zundaketako betegarria, 2012. urteko kanpainan argazki-pelikula zati bat aurkitu ondoren agerian geratu zena. Zundaketa hura hustu egin genuen pelikularen beste erdia aurkitu arte, 2012ko kanpainan gertatu zen bezala, eta kronologiari dagokionean Erdi Arotik harantzago zihoazen mailetan egin genuen lan. Interes handiko materialak identifikatu genituen: ardatz txiki bat, bi fibula, hainbat mutur, labaina izango zen bat, koraza zatia izan zitekeen bat eta metalezko beste errematxe batzuk, sutondoa izan zitekeenaren hondakinez gainera. Elementu horiek guztiek erakusten dute aztarnategi honetan gizakia ibili zela Antzin Aroaren bukaeran/Antzin Aroan.

En el barrio de Bolivar-Ugazua de Eskoriatza se sitúa el yacimiento arqueológico de Atxorrotz, cuya campaña de excavaciones del año 2013 tuvo una única intervención arqueológica entre los meses de abril y junio.

Durante esta campaña se trabajó en la eliminación del relleno del sondeo de I. Barandiaran, que quedó a la vista tras descubrir en la campaña de 2012 un fragmento de película fotográfica. Se vació ese sondeo hasta dar con la otra mitad de la película, tal y como ocurrió en la campaña de 2012 y se trabajó en niveles que cronológicamente iban más allá de la Edad Media. Se identificaron materiales de gran interés como: una fusayola, dos fibulas, varias puntas, un posible cuchillo, un posible fragmento de coraza y otros remaches metálicos, además de los restos de un posible hogar. Elementos que demuestran la presencia humana en este yacimiento en la Tardoantigüedad/Antigüedad.

I. Egizabal Santos